

UDAL OSOARI

AL AYUNTAMIENTO PLENO

Udal hilerrien zerbitzuen izaera publiko zergazkoa ez den ondare prestazioa arautzen duen Udal Ordenantza.

Ordenanza Municipal reguladora de la prestación patrimonial de carácter público no tributario por los servicios de cementerios municipales.

1.- 2019ko otsailaren 20ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 3/2019ko Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019ko zergazko arauak onestekoa.

1º.- Con fecha 20 de febrero de 2019 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la Norma Foral 3/2019, de 11 de febrero, de aprobación de determinadas medidas tributarias para el año 2019.

Foru Arau honek hainbat aldaketa barneratzen ditu, zeinak, oro har, Buletina argitaratu den hurrengo egunetik hasita sartzen diren indarrean, besteak beste, ondare publikoaren prestazioak Gipuzkoako zergazko arauetan barneratzea ere aurki dezakegun.

Esta Norma Foral introduce diferentes modificaciones que tienen efectos, con carácter general, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín, y entre ellas se encuentra la introducción en el ordenamiento tributario guipuzcoano de las prestaciones patrimoniales de carácter público.

Ildo horretan, hurrengo xedapenak aldatzen dira:

En ese sentido se modifican las siguientes disposiciones:

- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen.
- 2/1990 Foru Arauaren 2. artikulua, urtarrilaren 11koa, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa.
- 2/2005 Foru Arauaren, martxoaren 8koa, lehenengo xedapen osagarria, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergazko Arau Orokorra.
- El apartado 4 del artículo 20 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.
- El artículo 2 de la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos.
- La disposición adicional primera de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Izaera publikoko ondare prestazio horiek bi motatakoak izan daitezke: zergazkoak edo zergazkoak ez direnak.

Estas prestaciones patrimoniales de carácter público pueden ser dos tipos: de carácter tributario o de carácter no tributario.

Ondare publikoko zergazkoak ez diren prestazioen aurrean egongo gara zerbitzu publikokoak direnean, modu koaktiboan ezartzen direnean eta pertsonifikazio pribatu edo kudeaketa ez-zuzenaren bitartez pertsonifikatzen direnean.

Estaremos ante prestaciones patrimoniales públicas de carácter no tributario cuando sean prestaciones de servicio público, se establezcan de forma coactiva y se realicen de forma directa mediante personificación privada o mediante gestión indirecta.

Are zehatzago, halakotzat hartuko dira obren ustiapenak edo zerbitzuak emateak eskatzen dituztenak, kontzesio gisa, bai ekonomia mistoko sozietateek, enpresa erakunde publikoek, kapital publikoa bakarrik duten sozietateek eta eskubide pribatuko gainerako formulek ere.

En concreto tendrán tal consideración aquellas exigidas por la explotación de obras o la prestación de servicios, en régimen de concesión, sociedades de economía mixta, entidades públicas empresariales, sociedades de capital íntegramente público y demás fórmulas de derecho privado.

Hortaz, lehen tasa bat zena orain zergazkoa ez den ondare publikoko prestazioa izan daiteke, hau da, tarifa. Eta, hori guztia, zerbitzua ematen ari denari erreparatuta.

Así frente a lo que antes era una tasa ahora se puede dar el caso de que sea una prestación patrimonial pública de carácter no tributario, esto es, una tarifa. Y ello atendiendo a la figura de quién presta ese servicio.

Tarifa horiek obren emakidadunen eta zerbitzuen erabiltzaileek ordainduko dituzte, sektore publikoko kontratuen inguruko legeriak biltzen duena beteaz.

Estas tarifas las abonarán los usuarios a los concesionarios de obras y de servicios conforme a lo establecido en la legislación de contratos del sector público.



Zergazkoak ez diren prestazioak izanik, haien arautzea zergazkoa ez den Ordenantza batean bildu beharko da.

Beraz, udal hilerrietan Donostiako Hileta Zerbitzuak SA udal sozietateak, osorik Udalaren partaidetza duenak, zuzenean ematen dituen zerbitzuak jasotzen dituen Ordenantza onetsi behar da. Gaur egun arte tasatzat hartu dira eta udal hilerrien zerbitzuak emateko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren bitartez arautu dira.

Ordenantza berriaren sorrerarekin, udal hilerrietako zerbitzuak emateagatik tasak Arautzen dituen Zerga Ordenantzaren 6. Artikuluan araututako hobaria baliogabetzea proposatzen da, ezin baita hura aplikatu. Haien ordeztu Ordenantza berriaren eranskinean bildutako hurrengo bi tarifak aplikatuko dira:

- *Mortis causa* hileta eskubideen transmisio osoa edo partziala, titularra edo titularrak hil direnetik urte 1etik gorako epean izapidetu direnean.
- *Mortis causa* hileta eskubideen transmisio osoa edo partzialaren emakidak, titularra edo titularrak hil direnetik urte 1etik beherako epean izapidetu direnean.

Biak sailkatuta, hilobi mota eta ahaidetasun mailaren arabera.

Ondorioz, Udal hilerrien zerbitzuen izaera publiko zergazkoa ez den ondare prestazioa arautzen duen Udal Ordenantza onartzea proposatzen da, zeina ebazpen honen I. eranskin gisa erantzi den.

2.- Hurrengo kontzeptuak Ordenantza berri horretatik kanpo geratuko lirateke:

- Udalaren errausketa labea.
- Lagatze eta luzapen zerbitzuak.
- Polloeko panteoien emakida 75 urterako.
- Panteoiak lagatzea.

Lehena prezio publikoa da eta, ondorioz, udal jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak emateagatik prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza bidez arautu beharko da; bestea, aldiz, tasak dira eta, ondorioz, udal jabari publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkion tasak arautzeko zerga ordenantza bidez arautu beharko dira.

Siendo prestaciones de carácter no tributario su regulación debe estar recogida en una Ordenanza que no sea fiscal.

De esta manera nos encontramos ante la obligación de aprobar una Ordenanza municipal que recoja la realidad de los servicios que se prestan en los cementerios municipales de forma directa mediante la Sociedad Municipal Servicios Funerarios Donostia/San Sebastián S.A., participada íntegramente por éste Ayuntamiento, que hasta la fecha se han considerado tasas y han sido reguladas mediante la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la prestación de servicios en los cementerios municipales.

Con la creación de la nueva Ordenanza se propone que la bonificación regulada hasta ahora en el artículo 6º de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la prestación de servicios en los cementerios municipales, quede sin efecto ya que la misma no es de aplicación. En su lugar son de aplicación las siguientes dos tarifas que se encuentran recogidas en el anexo a la nueva Ordenanza:

- Por la transmisión total o parcial de derechos funerarios mortis causa cuya tramitación se haya producido en un plazo superior a 1 año desde el fallecimiento de el/los titular/es.
- Por la transmisión total o parcial de concesiones de derechos funerarios mortis causa cuya tramitación se haya producido en un plazo inferior a 1 año desde el fallecimiento de el/los titular/es.

Clasificadas ambas, según el tipo de sepultura y grado de parentesco.

En consecuencia, se propone aprobar la Ordenanza Municipal reguladora de la prestación patrimonial de carácter público no tributario por los servicios de cementerios municipales que se adjunta como Anexo I al presente dictamen.

2º.- Quedarían fuera de ésta nueva Ordenanza los siguientes conceptos:

- El crematorio municipal.
- Los servicios de cesión y prórroga.
- La concesión de panteones en Polloe por un plazo de 75 años.
- La cesión de panteones.

Mientras que la primera es un precio público y debe regularse mediante la Ordenanza Reguladora de precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales, las demás que le siguen son tasas y deberán regularse mediante la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del



dominio público municipal.

Aldaketa hauek oraindik ez dira egingo, beraz, egiten ez diren bitartean kontzeptu hauek Udal hierrietan emandako zerbitzuari dagozkion tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalan mantenduko dira.

Estas modificaciones quedan pendientes de realizar, por lo que en tanto no se realicen estos conceptos se mantendrán en la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la prestación de servicios en los cementerios municipales.

Aurreko guztian oinarrituta, eta Finantza Zuzendaritzak proposatuta, **OGASUN ETA FINANTZEN ZINEGOTZIAK** Udalaren Osoko Bilkurari proposatzen dio, Ogasunaren Komisioaren txostena aztertuta, hurrengo **AKORDIOAK** onestea:

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, **EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS** propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda, adopte los siguientes **ACUERDOS**:

LEHENA: Udal hilerrien zerbitzuen izaera publiko zergazkoa ez den ondare prestazioa arautzen duen Udal Ordenantza hasiera batean onestea, eta I. eranskinean idatzitako moduan barneratzea, azalpenen lehenengo zatian adierazitakoaren arabera.

PRIMERO: Aprobar inicialmente la nueva Ordenanza Municipal reguladora de la prestación patrimonial de carácter público no tributario por los servicios de cementerios municipales, quedando la misma redactada de la forma expresada en el documento adjunto como Anexo I, según lo expuesto en el apartado primero de la parte expositiva.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoarekin bat, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten.

SEGUNDO: Someter el expediente al trámite de información pública por un plazo de 30 días, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49 de la ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, a fin de que los interesados, puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen oportunas.

Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Donostia, 2019ko irailaren 12an.

San Sebastian, 12 de septiembre de 2019.

ZERGAK KUDEATZEKO ETA IKUSKATZEKO
ATALAREN BURUA

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta./Fdo: Loreto Sola Antoñanzas

Izpta./Fdo. Oscar Villasante Arbelaz

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA

Fdo/Izpta: Jaime Domínguez-Macaya Lournaga



I. ERANSKINA

ORDENANTZA-PROIEKTUA, UDALAREN HILERRI ZERBITZUEI DAGOKIEN IZAERA EZ-TRIBUTARIOKO ONDARE PRESTAZIO PUBLIKOARI BURUZKOA

1. artikulua- Foru Arauak.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak –2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen 2019ko otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauak emandako idazkeran– 20.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, izaera ez-tributarioko ondare prestazio publikotzat jotzen direnen tarifak arautu eta exijitzen dira ordenantza honen bidez.

2. artikulua- Xedea eta Izaera.

Honako hauek dira tarifaren xedea: modu hertsagarrian ezartzen diren kontraprestazio ekonomikoak, Hileta Zerbitzuak Donostia–San Sebastián SA sozietateak pertsonifikazio pribatuaren bidez zuzenean ematen dituen zerbitzuengatik jasotzen direnak.

Zehatz esan, ordenantza honen xede dira udal hilerrietan emandako zerbitzu hauei dagozkien tarifak:

- 1- Hileta-eskubideak bizien artean eskualdatzea, guztiz edo zati batean.
- 2- Hileta-eskubideak mortis causa eskualdatzea, guztiz edo zati batean, izapideak titularrak hil eta urtebete baino gehiago iragan eta gero egin badira.
- 3- Hileta-eskubideak mortis causa eskualdatzea, guztiz edo zati batean, izapideak titularrak hil eta urtebete iragan baino lehen egin badira.
- 4- Hilobiratzeko eta hilobitik ateratzeko zerbitzuak.
- 5- Tenplua zeremonia partikularra egiteko erabiltzea.
- 6- Panteoietako eta hilobietako gorpuzkiak murriztea (hilobi batekoak, lekuz aldatu gabe).
- 7- Gorpua gorputegian uzteagatik, eguneko edo egun-zatiko.
- 8- Hilerriak mantentzea, zaintzea eta garbiketa orokorra egitea.
- 9- Hainbat lekualdaketa egitea hilerrietan.
- 10- Hilobiak ostera lagatzea.
- 11- Administrazio-lanak.
- 12- Gorpuzkiak udal hilerrietan lekualdatzea.

3. artikulua- Ordaintzeko obligazioaren sorrera.

Zerbitzua ematean sortzen da tarifa ordaintzeko obligazioa. Honelakoetan jotzen da zerbitzua ematen hasia dela:

- Zerbitzu hauetan: hilobiratzeta eta hilobitik ateratzeta, gorpuzkiak murriztea, gorpua gorputegian uztea, hilerrietako lekualdaketak, hilobiak ostera lagatzea eta administrazio-lanak, eskabidea aurkezten denean.
- Hileta-eskubideak ematean: eskubideok ematen direnean.
- Hilerriak mantentzea, zaintzea eta garbiketa orokorra egiteko zerbitzuetan, urte bakoitzeko ekainaren 30ean.

4. artikulua- Ordaintzera behartuak.

Honakoak daude zerbitzua ordaintzera behartuta:

- Zerbitzua emateko edo hileta-eskubideak emateko eskatzen dutenak.
- Kapera, kripta edo hilobietako hileta-eskubideen titular diren aldetik, hilerriak mantendu, zaindu, garbitu eta apaintzeko zerbitzuei onura ateratzen dietenak edo zerbitzu horien eraginpean daudenak, ekainaren 30ean.



5. artikulua- Ordaintzera behartuak ez daudenak.

Kasu hauetan, ez da ordaindu beharrik izango:

- Pobrezia-egoeran hildakoak hilobiratzeke eta hilobitik ateratzeko zerbitzuak.
- Agintaritza Judizialak agindutako zerbitzuak.
- Salbuespenezko arrazoiengatik Udalak ordaindu behar dituen zerbitzuak.

6. artikulua- Tarifak.

Ordenantzaren Eranskinean ezartzen dira tarifak, zenbateko finkoetan, ematen diren zerbitzuen arabera.

7. artikulua- Tarifak berrikustea.

Udalbatzak zerbitzuengatik ordaindu beharreko zenbatekoak onartuko ditu: harrera; hilobiratzea eta hilobitik ateratzea; gorpuzkiak lekualdatu eta murriztea, gorpuk gorputegian uztea; hilerriak mantentzea, zaintzea eta garbitzea; hilobiak ostera lagatzea, eta administrazio-lanak. Horietaz gain, beste zerbitzu hauengatik zenbatekoak ere onartuko ditu: hileta-eskubideak eman, eskualdatu eta aldatzea, eta, horren ondorioz, beren izaera juridikoarekin bat datorren dokumentuan edo zerga-ordenantzan jasotzea, emandako zerbitzuaren, aukeratutako kudeaketa juridiko-motaren eta zerbitzua ematen duen erakundearen arabera.

8. artikulua- Ordaintzeko modua.

- Hilerriak mantendu, zaindu eta garbitzeko zerbitzua errolda bat osatuz kudeatzen den aldizkako zerbitzua denez, urtero ordainduko da, errolda jendaurrean jartzeko izapidean adierazitako moduan eta epean.
- Hilobiratzea eta hilobitik ateratzea, gorpuzkiak murriztea, gorpuk gorputegian uztea, hilerrietako lekualdaketa, hilobiak ostera lagatzea eta administrazio-lanak zerbitzua eman eta gero ordainduko dira.
- Hileta-eskubideak emateko zerbitzuak izapidea egin aurretik ordainduko dira.

Xedapen Indargabetzailea.

Ordenantza hau eta tarifak eta bertan arautzen diren gainerako eskubide ekonomikoak indarrean jartzean, ordenantza honek arautzen dituen gauza guztietan, Udal hilerrietan zerbitzuak emateagatik tasak arautzen dituen Zerga-Ordenantza indargabetuta geldituko da.

Era berean, indargabe geratuko dira udal hilerrietan emandako zerbitzuari dagozkion tasak arautzen dituen ordenantzaren zenbait zehaztapen, hala nola lagapen eta luzapen zerbitzuak, Polloeko panteoiak 75 urterako ematea eta panteoiak lagatzea, zerbitzu horiek arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketa indarrean sartzenean (udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobeixamendu berezia arautzen dituen zerga ordenantza). Orobat, errausketa labearen prezio publikoa indarrean sartzenean, horri buruzko zehaztapenak ere indarrrik gabe geratuko dira.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean iraungo du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

ANEXO I

PROYECTO ORDENANZA PRESTACION PATRIMONIAL DE CARACTER PUBLICO NO TRIBUTARIO POR LOS SERVICIOS DE CEMENTERIOS MUNICIPALES

Art. 1º- Normativa Foral.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 20.4 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, en redacción dada por la Norma Foral 3/2019, de 11 de febrero, de aprobación de determinadas medidas tributarias para el año 2019, se regulan y exigen las tarifas que tienen la consideración de prestaciones patrimoniales de carácter publico, no tributario.

Art. 2º- Objeto y Naturaleza

Constituye el objeto de la tarifa las contraprestaciones económicas establecidas coactivamente, que se perciban por la realización de los servicios realizados de forma directa mediante personificación privada por la sociedad Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián S.A..

En concreto son objeto de la presente Ordenanza las tarifas referentes a los siguientes servicios prestados en los Cementerios Municipales:

- 1- Transmisión total o parcial de derechos funerarios intervivos.
- 2- Transmisión total o parcial de derechos funerarios mortis causa cuya tramitación se haya producido en un plazo superior a 1 año desde el fallecimiento de los titulares.
- 3- Transmisión total o parcial de derechos funerarios mortis causa cuya tramitación se haya producido en un plazo inferior a 1 año desde el fallecimiento de los titulares.
- 4- Por los servicios de inhumación y exhumación.
- 5- Por los derechos de utilización del templo para ceremonia particular.
- 6- Reducción de restos en panteones y sepulturas (referidos a la misma sepultura y sin traslado).
- 7- Por cada depósito de cadáver al día o fracción de tiempo.
- 8- Por la conservación, vigilancia y limpieza general de los cementerios.
- 9- Diversos traslados en los cementerios.
- 10- Retrocesión de sepulturas.
- 11- Trabajos de índole administrativa.
- 12- Traslados de restos en los cementerios municipales.

Art. 3º – Nacimiento de la obligación del pago

La obligación del pago de la tarifa nace al prestarse el servicio. Se entiende iniciada la prestación del servicio:

- En los servicios de inhumación, exhumación, reducción de restos, depósito de cadáveres, traslados en los cementerios, retrocesión de sepulturas, trabajos de índole administrativa, al presentar la solicitud.
- En el otorgamiento de derechos funerarios: al otorgar los derechos funerarios.
- En los servicios de conservación, vigilancia y limpieza general de los cementerios, el 30 de junio de cada año.

Art. 4º- Obligados al pago

Estarán obligados al pago del servicio:

- Quienes soliciten la prestación de los servicios o el otorgamiento de derechos funerarios.
- Quienes a 30 de junio se beneficien o estén afectados por los servicios de conservación, vigilancia, limpieza y decoro de los cementerios en su condición de titulares de derechos funerarios, de capillas, criptas o sepulturas.

Art. 5º . No obligados al pago

No estarán obligados al pago de la tarifa:

- Los servicios de inhumación y exhumación de las personas fallecidas en estado de indigencia.

- Los servicios ordenados por la Autoridad Judicial.
- Los que por causas excepcionales deban ser costeados por el propio Ayuntamiento.

Art. 6º Tarifas

En el Anexo a la Ordenanza se establecen las tarifas según cantidades fijas, en función de los diversos servicios que se prestan.

Art. 7º Revisión de las tarifas

El Ayuntamiento Pleno aprobará los importes por los servicios de recepción, inhumación, exhumación, traslado y reducción de restos, depósito de cadáveres, conservación, vigilancia y limpieza de los cementerios, retrocesión de sepulturas y por los trabajos de índole administrativos, y por el otorgamiento, transmisión, modificación de los derechos funerarios, incorporándolos en el documento u Ordenanza Fiscal que se ajuste a su naturaleza jurídica, en función del servicio prestado, de la forma jurídica de gestión elegida y de la entidad que preste el servicio.

Art. 8º Forma de Pago

- La prestación del servicio de conservación, vigilancia y limpieza de los cementerios, por su carácter de servicio periódico que se gestiona con la formación de un Padrón, se abonará anualmente en la forma y en el plazo señalado en el trámite de exposición pública de Padrón.
- La prestación de los servicios de inhumación, exhumación, reducción de restos, depósito de cadáveres, traslados en los cementerios, retrocesión de sepulturas, trabajos de índole administrativa se abonarán una vez se preste el servicio.
- Los servicios de otorgamiento de derechos funerarios se abonarán previamente a la realización del trámite.

Disposición Derogatoria

A la entrada en vigor de esta Ordenanza y de las Tarifas y demás derechos económicos regulados en la misma, queda derogada la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la prestación de servicios en los cementerios municipales en todo aquello que pasa a ser regulado por la presente Ordenanza.

Asimismo, quedarán derogadas las determinaciones de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la prestación de servicios en los cementerios municipales referidas a los "servicios de cesión y prórroga" "la concesión de panteones en Polloe por un plazo de 75 años" y " la cesión de panteones" una vez entre en vigor la modificación de la Ordenanza Fiscal que regula las mismas (Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal), así como las determinaciones relativas al "Crematorio Municipal" una vez entre en vigor el precio público que la regule.

Disposición Final

La presente Ordenanza entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y se mantendrá en vigor mientras no se acuerde su derogación o modificación.